



LARRAUNGO UDALA
(Nafarroa)

BATZAR ERABAKIAREN JAKINARAZPENA

**Ana Alduntzin Navarro, Larraungo Udaleko idazkaria,
NERONEK ZIURTATUA:**

Larraungo Udalak 2018ko otsailaren 26an ospatutako Batzarrean, besteak beste, honako erabakia hartu zuela:

4.- MOZIOAK.

Nafarroako Gizarte Hezitzaile Elkargo Ofizialaren eskaera.

"Erabakia:

1. Larraungo Udalak bere babesa adierazten dio Hezkuntza Sozialari, herritarren beharrezkoen eta eskariei erantzuten dien lanbidea baita eta hezkuntzaren bidez aldaketa sozialak eragiten baititu.
2. Osasun Ministerioa eta Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuak premiatzen ditu Hezkuntza Sozialaren lanbidea arautzeko lege bat taxutu dezaten.
3. Erabaki hauek Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialari helaraztea.

Ziurtagiria luzatu dut, betiere akta onartzerakoan sar litezkeen aldaketen kalterik gabe, hori guztia Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Errege Dekretuko 206. artikulua ezarritakoaren arabera, azaroaren 26ko 2568/1986 zenbakiduna.

Ebazpen honen kontra, errekurtsio hauetariko bat aurkez daiteke:

- 1.- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, ekintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita edota GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik aurrera.
- 2.- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinazari eta biharamunetik aurrera.




LARRAUNGO UDALA
(Nafarroa)

Larraunen, 2018ko martxoaren 19an.

ALKATEA

Izptua: José Javier Barberena Etxarra



IDAZKARIA